

# Zirkulazioa

# Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Zirkulazioa**

# **H**IZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2020

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

**<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>**

Argitaraldia:	I.a, 2020ko otsaila
Ale-kopurua:	I.500 ale
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	<a href="http://www.euskadi.eus/euskalterm">www.euskadi.eus/euskalterm</a>
Azala:	Concetta Probanza
Inprimaketa:	Gráficas Dosbi, S.L.
ISBN:	978-84-457-3524-4
Lege gordailua:	LG G 0059-2020

## HITZAURREA

**B**este edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hitzunik lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan [www.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Jaurlearitzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

*Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 20a*

**MIREN DOBARAN URRUTIA**

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

---

1. 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

**Hiztegia erabilitako ponderazio-markak:**

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

**Hiztegia erabilitako laburtzapenak:**

**eu** euskara

**es** español

**fr** français

**en** English

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus

## NORMALIZAZIOA

### BATZORDE TEKNIKOA

**Edurne Fernández de Antona** (Segurtasun Saileko euskara-teknikaria)  
**Elisabeth Navarro** (Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzako teknikaria)  
**Jaione Aramendi** (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziaeko itzultzailea)  
**Jose Luis Iturrioz** (Besaingo Igartza Autoeskolako irakaslea)  
**Joxean Zapirain** (UZEIko teknikaria)  
**Xabier Auzmendi** (Segurtasun Saileko Gipuzkoako Trafiko Lurralde Bulegoko burua)  
Koordinatzailea: **Mertxe Olaizola** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

### TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Miren Dobaran Urrutia**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria  
**Garbiñe Doval Garcia**, IVApeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea  
**Josune Zabala Alberdi**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria  
**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkarria  
**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkarria  
**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institututuko ordezkarria  
**Gotzon Lobera Revilla**, Euskaltzaindiaren ordezkarria  
**Maite Imaz Leunda**, IVApeko ordezkarria  
**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkarria  
**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua  
**Alberto Atxabal Rada**, aditua  
**Naroa Gorostiaga Barriola**, aditua  
**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua  
**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua  
**Pascual Rekalde Irigoien**, aditua

**UZEIren LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK**

**Iñigo Segurola.** «Lur paisajistak» enpresako zuzendaria

**Jakoba Errekondo.** Lorezaintzan aditua, Zerain Fundazioa

**Mendikoi Fraisoro.** Nekazaritza Eskolako irakasleak.

(Arduraduna: Mari Jose Maiz)

## EREMU - ZUHAITZA

- 1 Erabiltzaileak, kontzeptu orokorrak
- 2 Ikaskuntza eta gaikuntza
- 3 Bide-motak eta bide-atalak
- 4 Bideen egoera
- 5 Ibilgailuen sailkapena eta kategoriak
- 6 Ibilgailu motordunen baldintza teknikoak, osagaiak eta mekanika
- 7 Garraioak
- 8 Seinaleak eta markak
- 9 Administrazio-baimenak eta bestelako agiriak
- 10 Zirkulazioaren gertaerak eta portaerak
- 11 Zehapen-prozedura
- 12 Araudia eta organoak

## AURKIBIDEA

<b>Bokabularioa sailka</b> .....	15
1. ERABILTZAILEAK, KONTZEPTU OROKORRAK....	16
2. IKASKUNTZA ETA GAIKUNTZA .....	19
3. BIDE-MOTAK ETA BIDE-ATALAK .....	24
4. BIDEEN EGOERA .....	42
5. IBILGAILUEN SAILKAPENA ETA KATEGORIAK ....	47
6. IBILGAILU MOTORDUNEN BALDINTZA TEKNIKOAK, OSAGIAK ETA MEKANIKA.....	70
7. GARRAIOAK.....	99
8. SEINALEAK ETA MARKAK.....	104
9. ADMINISTRAZIO-BAIMENAK ETA BESTELAKO AGIRIAK .....	113
10. ZIRKULAZIOAREN GERTAERAK ETA PORTAERAK .....	121
11. ZEHAPEN-PROZEDURA .....	135
12. ARAUDIA ETA ORGANOAK .....	141
<b>Euskarazko aurkibidea</b> .....	149
<b>Gaztelaniazko aurkibidea</b> .....	169
<b>Frantsesezko aurkibidea</b> .....	189
<b>Ingelesezko aurkibidea</b> .....	203
<b>Erreferentzia bibliografikoak</b> .....	217

## OHARRA

Hiztegi honetan agertzen diren kontzeptuak Espainiako estatuko testuinguru administratibo-juridikokoak dira. Esparru horretan landu da hiztegi honen terminologia.

ZIRKULAZIOA



# **BOKABULARIOA SAILKA**

## I. ERABILTZAILEAK, KONTZEPTU OROKORRAK

**abere-talde**

Ik. animalia-saldo

**ahuku antolatatu**

Ik. segizio antolatatu

**animalia jare**

Ik. animalia lokabe

## I

**animalia lokabe (4)**

Sin. animalia jare (4)

**es** animal en libertetad; animal suelto**fr** animal en libeté**en** free roaming animal

## 2

**animalia-saldo (4)**

Sin. abere-talde (4)

**es** manada; rebaño**fr** troupeau**en** herd

babes-kasko

Ik. kasko

## 3

**bidaiari (4)**

Ibilgailu batean doan pertsona, ibilgailuaren gobernuaz eta zerbitzuaz arduratzen ez dena.

**es** pasajero; viajero**fr** passager**en** passenger

## 4

**bide-erabiltzaile (4)**

Leku batetik beste batera joateko bide publikoa darabilen oinezkoa edo ibilgailu-erabiltzailea.

**es** usuario de la vía**fr** usager de la route**en** road user**bizikletari**

Ik. txirrindulari

## 5

**garraiolari (4)**

Garraio-kontratu baten indarrez salgaiak edo pertsonak leku batetik bestera eramateko eginbeharra bere gain hartzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

**es** transportista; porteador**fr** transporteur**en** carrier; haulier

## 6

**gidari (4)**

Ibilgailu baten direkzio- edo aginte-mekanismoa darabilen pertsona edo bere ardurapean animalia bat edo gehiago dituen; gidari-eskolako ibilgailuetan, aginte gehigarrien ardura duen pertsona.

**es** conductor**fr** conducteur**en** driver

## 7

**gidari berri (4)**

Sin. gidari hasiberri (4)

Urtebetetik beherako antzinatasuneko gidabaimena duen gidaria.

**es** conductor novel**fr** conducteur débutant; conducteur novice**en** learner driver; novice driver

## 8

**gidari ez-egoiliar (4)****es** conductor no residente**gidari hasiberri**

Ik. gidari berri

9

**gidari profesional (4)**

Lan-jardun nagusia bidaiariak edota salgaiak garraiatzeko ibilgailu motordunak gidatzea duen pertsona. Halako ibilgailuak gidatzeko behar den administrazio-baimenaren jabe izan behar du, eta ziurtagiri bidez egiaztatu behar du bidaiariak edota salgaiak garraiatzeko ibilgailu motordunak gidatzea duela lan-jardun nagusia.

**es** conductor profesional  
**fr** conducteur professionnel  
**en** professional driver

10

**gurpil-aulki (4)**

**es** silla de ruedas  
**fr** fauteuil roulant  
**en** wheel chair

11

**haur-aulki (4)**

Ibilgailuetarako aulkia, berariaz diseinatua haurrei ibilgailu barruan ondo eusteko eta astinduak, talkak eta desazeleratze bortitzak gertatuz gero babesteko.

**es** asiento infantil  
**fr** siège d'auto pour enfant; siège de sécurité pour enfant; siège de sécurité pour bébé  
**en** children's car seat; child safety seat

12

**haurrak lotzeko sistema (4)**

**es** sistema de retención infantil  
**fr** système de retenue des enfants  
**en** child restraint system; CRS

13

**ibilgailu-erabiltzaile (4)**

**es** usuario del vehículo  
**fr** utilisateur du véhicule  
**en** vehicle user

14

**ibilgailu-errentari (4)**

**es** arrendatario de un vehículo

15

**ibilgailuaren titular (4)**

Ibilgailua bere izenean erregistratua duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

**es** titular del vehículo  
**fr** titulaire du véhicule  
**en** vehicle holder

16

**ikaskle-ilara (4)**

**es** fila escolar

17

**jantzi islatzaile (4)**

**es** prenda reflectante

18

**kasko (4)**

Sin. babes-kasko (4)

Garezurreko traumatismoak saihesteko, buruan jartzen den estalkia; nahitaezkoa da zenbait ibilgailutan.

**es** casco; casco de protección  
**fr** casque; casque de protection  
**en** helmet; protective helmet

19

**kasko integral (4)**

Garezurra, aurpegia eta masailezurra babesteko diseinatutako kaskoa.

**es** casco integral  
**fr** casque intégral

20

**lor-abere (4)**

Lau hankako etxe-aberea; dituen gaitasunengatik eta gorpuzkeragatik, ibilgailuak, objektu astunak eta nekazaritzako erremintak herrestatzeko erabiltzen da.

**es** animal de tiro  
**fr** animal de trait  
**en** draught animal

21

**norbera babesteko****ekipamendu (4)**

- es** equipo de protección individual  
**fr** équipement de protection individuelle; EPI  
**en** personal protective equipment; PPE

22

**ohiko gidari (4)**

Beharrezko gidabaimena edo gidalizentzia izanik eta Gidarien eta Arau-hausleen Erregistroan izena emanda egonik, ibilgailu bat normalean edo gehienetan gidatzen duen pertsona, hala dagokionean, epe luzerako errentariak haren baimenarekin Ibilgailuen Erregistroan ohiko gidari gisa inskribatzen duena.

- es** conductor habitual  
**fr** conducteur habituel  
**en** usual driver

23

**oinezko (4)**

Gidaria izan gabe zenbait bide nahiz lursailetatik oinez dabilen pertsona. Oinezkotzat hartzen dira honako hauek ere: haur-kotxeak, desgaitasuna duten pertsonentzako orgak edo motorrik gabeko ibilgailu txikiak bultzatzen edo herrestan eramaten dituztenak, bi gurpileko ziklo edo ziklomotorrak oinez daramatzatenak, eta gurpil-aulkietan (motordunetan nahiz motorrik gabekoetan) oinezkoen abiaduran doazen pertsonak.

- es** peatón  
**fr** piéton  
**en** pedestrian

24

**segizio antolatu (4)**

- Sin. ahuku antolatu (4)  
**es** comitiva organizada  
**fr** convoi organisé  
**en** organized convoy

25

**tropa-formazio (4)**

- es** tropa en formación

26

**txaleko islatzaile (4)**

- es** chaleco reflectante  
**fr** gilet réflecteur  
**en** reflective vest; reflective jacket

27

**txirrindulari (4)**

- Sin. ziklista (4); bizikletari (4)  
 Bizikletan ibiltzen den pertsona.  
**es** ciclista  
**fr** cycliste  
**en** cyclist

28

**zama-abere (4)**

- Sin. zamari (4)  
 Zamak garraiatzeko erabiltzen den etxe-aberea, lau hankakoa.  
**es** animal de carga  
**fr** animal de bât; animal de somme  
**en** beast of burden; pack animal  
 zamari  
 lk. zama-abere

29

**zela-abere (4)**

- Oin biribileko animalia, zelatzen dena.  
**es** animal de montura; animal de silla  
**fr** animal de selle; monture  
**en** riding animal

**ziklista**

- lk. txirrindulari

## 2. IKASKUNTZA ETA GAIKUNTZA

### autoeskola

Ik. gidari-eskola pribatu

30

### azterketa-zentro (4)

Ezagutzak neurtzeko proba eta gaitasunak eta portaerak neurtzeko proba egiten dituen zentroa, Trafiko Burutza Nagusiak baimendutakoa.

**es** centro de exámenes

**fr** centre d'examen

**en** examination centre

31

### aztertzaile (4)

**es** examinador

**fr** examinateur

**en** examiner

32

### bide-segurtasuneko

### hezuntza (4)

Bide-segurtasunari buruzko ezagutzak eta, bideen erabilerari dagokionez, jarrera arduratsuak eta bizikidetzazkoak transmititzeko erabiltzen diren baliabideen multzoa.

**es** educación vial

**fr** éducation en sécurité routière

**en** traffic safety education

33

### birziklatze-ikastaro (4)

**es** curso de reciclaje

**fr** cours de recyclage

**en** retraining course

34

### egoera fisiko (4)

**es** condición física

**fr** condition physique

**en** physical condition

35

### egoera psikiko (4)

**es** condición psíquica

**fr** condition psychique

**en** psychic condition

36

### etendako txosten (4)

Gaitasun psikofisikoari buruzko txostena, arrazoi hauetakoren bat dela eta etenda geratu dena: interesdunak osasun-azterketa egiten jarraitu ez izana edo txosten osagarriren bat eskatu eta eraman ez izana.

**es** informe interrumpido

37

### “ez-gai” emaitza duen

### txosten (4)

Gaitasun psikofisikoari buruzko txostena, honako hau adierazten duena: interesduna, osasun-azterketa egin zaion unean gidatzeko behar diren gaitasun psikofisikoaren jabe izan ez denez, gaitasun gabekotzat jo da edozein motatako gidabaimen edo gidalizentzia eskuratzeko.

**es** informe con resultado de no apto

38

### ezagutza espezifikoak

### neurtzeko proba (4)

Gidabaimen-motaren edo gidalizentzia-motaren araberako ezagutzak neurtzen dituen proba.

**es** prueba de control de

conocimientos específicos

39

**ezagutza komunak neurtzeko proba (4)**

Gidabaimen-mota guztietarako –AM gidabaimenerako izan ezik– behar diren ezagutzak neurtzen dituen proba.

**es** prueba de control de conocimientos comunes

40

**ezagutzak neurtzeko proba (4)**

Sin. proba teoriko (4)

Gidatzeko beharrezkoak diren oinarriko eduki teorikoak ezagutzen direla egiaztatzea helburu duen gaitasun-proba.

**es** prueba de control de conocimientos; prueba teórica

**fr** épreuve de contrôle des connaissances; épreuve théorique de conduite

**en** theory test

41

**falta arin (4)**

Gaitasunak eta portaerak neurtzeko proban egin daitekeen falta-motetako bat; falta astunak eta falta baztertzailak dira besteak.

**es** falta leve

**fr** faute légère

42

**falta astun (4)**

Gaitasunak eta portaerak neurtzeko proban egin daitekeen falta-motetako bat; falta arinak eta falta baztertzailak dira besteak.

**es** falta deficiente

43

**falta baztertzaille (4)**

Gaitasunak eta portaerak neurtzeko proban egin daitekeen falta-motetako bat; falta arinak eta falta astunak dira besteak.

**es** falta eliminatória

44

**“gai baldintza murriztaileekin” emaitza duen txosten (4)**

Gaitasun psikofisikoari buruzko txostena, honako hau adierazten duena: interesdunak, gidabaimen edo gidalizentzia arrunt bat eskuratzea edo luzatzea eragozten dion gaixotasun edo urritasunen bat duenez, baldintza murriztaileak dituen gidabaimen edo gidalizentzia bereganatzeko aukera du.

**es** informe con resultado de apto con condiciones restrictivas

45

**“gai” emaitza duen txosten (4)**

Gaitasun psikofisikoari buruzko txostena, interesdunak gidabaimen edo gidalizentzia arrunt bat eskuratzea edo luzatzea eragotziko dion gaixotasun edo urritasunik ez duela adierazten duena.

**es** informe con resultado de apto

46

**gaitasun psikofisikoari buruzko txosten (4)**

Gaitasun psikofisikoko probaren datuak jasotzen dituen txostena, emaitza hauetakoren bat duena: gai, gai baldintza murriztaileekin, ez-gai eta etenda.

**es** informe de aptitud psicofísica

**fr** rapport d'aptitudes psychophysiques

**en** psychological and physical aptitude report

47

**gaitasun psikofisikoko proba (4)**

Gidatzeko beharrezkoak diren gaitasun fisiko eta psikologikoak egiaztatzea helburu duen gaitasun-proba. Proba horren bidez, ziurtatzen da gidariak ez duela gidatzea eragotziko dion gaixotasun edo urritasunik, ezta gidatzeko egokitzapenak egitea, murriztapenak ezartzea edo bestelako muga batzuk ezartzea dakarren gaixotasun edo urritasunik ere.

**es** prueba de aptitud psicofísica

**fr** épreuve d'aptitudes psychophysiques

**en** psychological and physical aptitude test

48

**gaitasun-proba (4)**

Gidatzeko administrazio-baimena eskuratzeko gainditu beharreko proba. Proba hiru motatakoa da: gaitasun psikofisikoko proba, ezagutzak neurtzeko proba, eta gaitasunak eta portaerak neurtzeko proba.

**es** prueba de aptitud

**fr** épreuve d'aptitude

**en** aptitude test

49

**gaitasunak eta portaerak neurtzeko proba (4)**

Sin. proba praktikoa (4)

Gidariaren trebetasunak, abileziak eta portaerak neurtzen dituen gaitasun-proba, zirkuitu itxian eta zirkulaziorako zabalik dauden bideetan egiten dena.

**es** prueba de control de aptitudes y comportamientos; prueba práctica

**fr** épreuve de contrôle des aptitudes et des comportements; épreuve pratique de conduite

**en** test of skills and behaviour

50

**gaitasunak eta portaerak zirkuitu itxian neurtzeko proba (4)**

Gaitasun-proba, gidariak ibilgailua gidatzeko eta kontrolatzeko dituen trebetasun eta abileziak neurtzen dituen; zirkulaziorako itxia eta hartarako egokituta dauden lursail edo pistetan egiten da.

**es** prueba de control de aptitudes y comportamientos en circuito cerrado

51

**gaitasunak eta portaerak zirkulaziorako zabalik dauden bideetan neurtzeko proba (4)**

Gaitasun-proba, gidariak trafikoko egoera errealean gidatzean sortzen zaizkion zailtasunei aurre egiteko dituen gaitasunak eta portaerak neurtzen dituen.

**es** prueba de control de aptitudes y comportamientos en circulación en vías abiertas al tráfico general

52

**gidari-eskola ofizial (4)**

Espainiako Erresumako erakunde militar baten mende edo Guardia Zibilaren nahiz Poliziaren zuzendaritza nagusi baten mende dagoen gidari-eskola baimendua, gidabaimen arruntekin trukatu daitezkeen gidabaimenak emateko ahalmena duena.

**es** escuela oficial de conductores

**fr** école de conduite officielle

**en** official driving school

53

**gidari-eskola pribatu (4)**

Sin. autoeskola (4)

Gidabaimen edo gidalizentzia bat eskuratu nahi dutenei segurtasunez zirkulatzeko funtsezkoak diren ezagutzak, trebetasunak, gaitasunak eta portaerak modu profesionalean irakasteko gaituta dagoen irakaskuntza-zentroa.

**es** escuela particular de conductores; autoescuela

**fr** école de conduite privée; auto-école

**en** private driving school; driving school

54

**gidari-eskola pribatuko zuzendari (4)**

Gidari-eskola pribatu bateko irakaskuntza planifikatzeko, programatzeko, antolatzeke, zuzentzeko eta kontrolatzeko ardura duen pertsona. Horretarako, Gidari Eskola Pribatuko Zuzendariaren Gaitasun Agiriaren jabe eta Zuzendari Jarduteko Baimenaren jabe izan behar du.

**es** director de escuela particular de conductores

55

**gidariak berrezteko zentro (4)**

Gidariak sentsibilizatzeko eta berrezteko ikastaroak ematen dituen zentroa.

**es** centro de reeducación vial

56

**gidariak prestatzeko irakasle (4)**

Gidabaimen edo gidalizentzia bat eskuratu nahi duten ikasleei eskola teorikoak eta praktikoak ematen dizkien profesionala. Horretarako, Gidariak Prestatzeko Irakaslearen Gaitasun Agiriaren jabe eta Irakasle Jarduteko Baimenaren jabe izan behar du.

**es** profesor de formación vial

**fr** enseignant de la conduite automobile et de la sécurité routière; moniteur de conduite automobile

**en** car driving instructor

57

**gidariak prestatzeko zentro (4)**

Gidabaimen edo gidalizentzia bat eskuratzeko behar den prestakuntza ematen duen zentroa edo halako baimen edo lizentzia baten titular denarentzat gidatzeko bestelako prestakuntza-mota bat (Gaitasun Profesionalaren Agiria, ADR baimena, etab.) eskaintzen duen zentroa.

**es** centro de formación de conductores

**fr** centre de formation des conducteurs

**en** driving training centre

58

**gidariak sentsibilizatzeko eta berrezteko ikastaro (4)**

Gidariaren bide-zirkulazioarekiko jarrera aldatzeko helburua duen ikastaroa, bi mota hauetakoren batekoa dena: puntuak berreskuratzeko ikastaroa edo gidabaimena berreskuratzeko ikastaroa.

**es** curso de sensibilización y reeducación vial

59

**gidariei osasun-azterketak egiteko zentro (4)**

Gidatzeko beharrezkoak diren gaitasun psikofisikoak egiaztatzeko probak eta miaketak egiten dituen zentro mediko baimendua, gaitasun psikofisikoari buruzko txostena egiten duena.

**es** centro de reconocimiento de conductores

**fr** centre de reconnaissance des conducteurs

**en** drivers check centre

60

**gidarigai (4)**

**es** aspirante a conductor

61

**gidatze- eta zirkulatze-praktikak (4)**

**es** prácticas de conducción y circulación

62

**maniobra-praktikak (4)**

Sin. trebetasun-praktikak (4)

**es** prácticas de maniobras; prácticas de destreza

63

**prestakuntza praktikoa (4)**

**es** formación práctica

64

**prestakuntza teorikoa (4)**

**es** formación teórica

65

**prestakuntza teorikoa espezializatu (4)**

**es** formación teórica especializada

66

**prestakuntza teorikoa komun (4)**

**es** formación teórica común

**proba praktikoa**

Ik. gaitasunak eta portaerak neurtzeko proba

**proba teorikoa**

Ik. ezagutzak neurtzeko proba

**trebetasun-praktikak**

Ik. maniobra-praktikak

## 3. BIDE-MOTAK ETA BIDE-ATALAK

67

**30eko eremu (4)**

Sin. 30eko gune (4)

Oinezkoentzat bereziki egokitutako zirkulazio-eremua; oinezkoek dute lehentasuna, eta ibilgailuentzat gehieneko abiadura 30 km/h da.

es zona a 30; zona 30

fr zone 30

en 30 zone

**30eko gune**

Ik. 30eko eremu

68

**abelbide (4)**

Sin. kabala-bide (4); altxonbide (4)

Ganadu ibiltarientzako transhumantzia-bidea.

es cañada; vía pecuaria

fr draille

en herding track

69

**abiadura seinalizatuan joateko erreie erreserbatu (4)**

es carril reservado en función de la velocidad señalizada; carril reservado para el tráfico en función de la velocidad señalizada

70

**abiadura-murritztaile (4)**

Sin. AM (4)

Errepide-tarte batean, errodatze-bandaren gainazalean kokatutako gailua, tarte horretarako ezarritako abiaduran zirkularaztea xede duena. Gailu horren bidez, bidearen sestra goratu egiten da eta azelerazio bertikala sorrarazten da ibilgailuetan; azelerazio horrek deserosotasuna eragiten die gidari eta bidaiariei, eta, ondorioz, abiadura murritztera behartzen du.

es reductor de velocidad; RDV

fr ralentisseur

en traffic calming device

71

**adar (4)**

Bide-gurutzagune batean, bide bat bestearekin lotzen duen bidea, batetik bestera igarotzeko aukera ematen duena.

es ramal

fr branche

en turning roadway

72

**albo-erdibitzaile (4)**

Zirkulazio-noranzko bereko bi plataforma banatzen dituen luzetarako zerrenda, zirkulaziorako prestatua ez dagoena.

es terciaria; separador externo

fr terre-plein latéral

en lane divider; outer separation

73

**aldapa (4)**

Sin. malda (4)

Errepide batek plano horizontalarekiko duen luzetarako inklinazioa.

es pendiente

fr déclivité; pente

en gradient

74

**aldapa handiko bide-tarte (4)**

Gutxienez % 7ko inklinazioa duen bide-tartea.

**es** tramo de gran pendiente

75

**alertako zeharkako banda (4)**

Sin. AZB (4)

Galtzadaren errodatze-bandaren gainazala aldatzen duen gailua, gidariari subjektiboki antzemandakoa baino arrisku handiagoa dagoela eta, hortaz, arreta handiz zirkulatu behar duela ohartarazten diona ibilgailuaren esekidura eta moteldurako sisteman duen eraginaren ondorioz sortutako bibrazio eta zaraten bidez.

**es** banda transversal de alerta; BTA

**fr** bande rugueuse

**en** rumble strip

**altxonbide**

Ik. abelbide

**AM**

Ik. abiadura-murriztaile

76

**aparkaldi mugatuko gunee (4)**

Ibilgailuak denbora-tarte jakin batez soilik aparkatzeko eremua.

**es** zona de estacionamiento

limitado; zona azul

**fr** zone bleue; zone de

stationnement à durée limitée

**en** blue zone; parking meter zone

77

**aparkaleku (4)**

Sin. parking (4)

Bide publikoan ibilgailua aparkatzeko egokitutako gunea.

**es** aparcamiento; parking

**fr** parc de stationnement; parking

**en** car park; parking lot

**apartaleku**

Ik. baztergunee

78

**areka (4)**

Euri-urak jasotzeko bide-bazterrean egiten den zanga.

**es** cuneta

**fr** caniveau

**en** ditch

79

**atsedegunee (4)**

Errepide ondoko eremua, ibilgailuak aldi batean aparkatuta uzteko prestatua eta, batzuetan, bide-erabiltzaileek zirkulazio-eremutik kanpora atsedeen hartzeko behar dutenaz hornitua.

**es** área de descanso; zona de descanso

**fr** aire de repos

**en** rest area

80

**autobia (4)**

Berariaz autobia gisa proiektatu, eraiki eta seinaleztatutako errepidea: sarbide mugatua du aldameneko lursailetatik; autobiak ez du gurutzatzen sestra berean inolako bidezidor, bide, trenbide edo tranbia-linearik, eta ezin bidezidor, komunikazio-bide edo bide-zorrek ere ez du autobia sestra berean gurutzatzen; zirkulazioaren noranzko bakoitzerako galtzada bat du, zirkulaziorako ez den lur-zerrenda baten bitartez edo beste eraren baten bidez berezita, salbu eta toki berezietan edo aldi batzuetan.

**es** autovía

**fr** route express

**en** expressway

81

**autobide (4)**

Berariaz automobilak bakarrik zirkulatzeko proiektatutako, eraikitako eta seinaleztatutako errepidea: ez du aldameneko lursailetatik sartzeko biderik; autobideak ez du gurutzatzen sestra berean inolako bidezidor, bide, trenbide edo tranbia-linearik, eta ezein bidezidor, komunikazio-bide edo bide-zorrek ere ez du autobidea sestra berean gurutzatzen; zirkulazioaren noranzko bakoitzerako galtzada bat du, zirkulaziorako ez den lur-zerrenda baten bitartez edo, ohiz kanpo, beste eraren baten bidez berezita, salbu eta toki berezietan edo aldi batzuetan.

<b>es</b>	autopista
<b>fr</b>	autoroute
<b>en</b>	motorway

82

**autobus-errei (4)**

<b>es</b>	carril bus
<b>fr</b>	voie bus
<b>en</b>	bus lane

83

**autobus-geltoki (4)**

<b>es</b>	estación de autobuses; terminal de autobuses
<b>fr</b>	gare routière
<b>en</b>	bus station

84

**automobil-bide (4)**

Automobilaren zirkulaziorako soilik erreserbatutako bidea, galtzada bakarrekoa, aldameneko lursailetara sarbiderik ez duena.

<b>es</b>	vía para automóviles
-----------	----------------------

85

**autonomia-erkidegoko errepide (4)**

<b>es</b>	carretera autonómica
-----------	----------------------

**AZB**

Ik. alertako zeharkako banda

86

**azelerazio-errei (4)**

Errei lagungarria, zirkulazio lasterrekoa ez den errepide batetik datozen ibilgailuak halako errepide batean errazago eta abiadura egokian sar daitezzen egindakoa.

<b>es</b>	carril de aceleración
<b>fr</b>	voie d'accélération
<b>en</b>	acceleration lane

**balaztatzeko gune**

Ik. frenatzeko gune

87

**bazterbide (4)**

Galtzadaren alboetan dauden luzetarako lur-zerrendetako bakoitza, salbuespen-kasuetan izan ezik automobilek zirkulatzeko erabili ezin dutena.

<b>es</b>	arcén
<b>fr</b>	accotement
<b>en</b>	shoulder; verge

88

**bazterbide ibilgarri (4)**

<b>es</b>	arcén practicable; arcén transitable
-----------	--------------------------------------

89

**baztergune (4)**

Sin. apartaleku (3)

Galtzadaren zabalgunea, zirkulazioa oztopatu gabe ibilgailuak bertan geratzeko egina.

<b>es</b>	apartadero; bahía
<b>fr</b>	place d'évitement
<b>en</b>	passing bay; passing place

90

**beheranzko aldapa (4)**

Sin. malda-behera (4)

Aurreko noranzkoan sestra batek duen beheranzko inklinazioa.

**es** pendiente**fr** pente longitudinale; pente descendante**en** descending gradient; downgrade; slope downwards

91

**berezko norabide (4)**

Ibilgailuek bide batean jarraitu behar duten norabidea.

**es** dirección propia

92

**berma (4)**

Bazterbidearen kanpoko ertzaren eta arekaren edo ezpondaren artean dagoen luzetarako zerrenda, zoladuraduna nahiz zoladuragabea. Zoladuraduna plataformaren zati bat izaten da.

**es** berma**fr** berme**en** berm

93

**bide (4)**

Erabilera erkidea duen edo erabilera publikorako zabalik dagoen errepide edo lur-zerrenda, publikoa nahiz pribatua, bertatik ibiltzeko prestatuta dagoena.

**es** vía**fr** route**en** road**bide arrunt**

Ik. errepide arrunt

94

**bide pribatu (4)****es** vía privada**fr** voie privée**en** private way

95

**bide publiko (4)**

Administrazio publiko baten jabetzako bidea, pertsona orok erabil dezakeena.

**es** vía pública**fr** voie publique**en** public way**bide seinaleztatu misto**

Ik. bide seinaleztatu partekatu

96

**bide seinaleztatu partekatu (4)**

Sin. bide seinaleztatu misto (4)

Bizikletentzako azpiegitura txikia: behar bezala tratatutako, seinaleztatutako eta atondutako bidea edo galtzada da, eta, ibilgailu motordun gutxik erabiltzen dutenez eta trafikiko oso motela duenez, bizikletaz eroso eta seguru ibiltzeko aukera ematen du, beste bizikleta-bide batzuk dituzten bereizte eta mugaketa-mailarik gabe. Ibilgailu motordunek ere erabiltzen dute.

**es** vía señalizada compartida; vía señalizada mixta**bide-korapilo**

Ik. bide-sareko gurutzagune

**bide-sare**

Ik. errepide-sare

97

**bide-sareko gurutzagune (4)**

Sin. bide-korapilo (4)

Bi bide edo gehiago gurutzatzen diren gunea, bide batetik bestera igarotzeko aukera eskaintzen duena. Bi motatakoak izaten dira: bidegurutzak eta lotuneak.

**es** nudo de la red viaria; nudo viario

98

**bide-tarte (4)**

Bide baten trazatuarekiko zeharkakoak diren bi sekzioen arteko zatia, ezaugarri geometriko eta estruktural jakin batzuk dituena.

**es** tramo**fr** tronçon de route**en** road section**bide-zola**

Ik. bide-zoru

99

**bide-zoru (4)**

Sin. bide-zola (4)

Plataformaren gainegitura osatzen duten geruzen multzoa, hautatutako eta tratatutako materialez egindakoa.

**es** firme**fr** chaussée**en** pavement

100

**bidebanatze (4)**

Bide bat bitan banatzen den tokia.

**es** bifurcación**fr** bifurcation**en** bifurcation

101

**bidegurutze (4)**

Errepide-sarearen gurutzagunea, zeinean bertatik igarotzen diren ibilgailuen gurutzatze-mugimendu guztiak maila berean egiten diren.

**es** intersección**fr** intersection; carrefour; carrefour à niveau**en** intersection; junction; junction at grade

102

**bidesari (4)**

Bide-azpiegitura batzuetan zirkulatzeko ordaindu beharreko eskubidea.

**es** peaje**fr** péage**en** toll

103

**bidesari gabeko autobide (4)****es** autopista sin peaje**fr** autoroute sans péage**en** toll-free motorway

104

**bihurgune (4)**

Sin. kurba (4)

Errepideak norabidea aldatzen duen bide-tartea, zati zuzenik ez duena.

**es** curva**fr** virage**en** curve

105

**bihurgune arriskutsuen segida (4)****es** sucesión de curvas peligrosas

106

**biribilgune (4)**

Bide bat baino gehiago eraztun-itxurako galtzada batean elkartzen dituen bidegurutzea; noranzko bakarra izaten du, eta galtzadaren erdian izaten den irlatxo baten inguruan antolatzen da zirkulazioa. Eraztun-itxurako galtzada horretan zirkulatzeko ari direnek igarotzeko lehentasuna dute bertan sartzera doazenekiko.

**es** rotonda; glorieta**fr** rond-point**en** roundabout

107

**bizikleta eta autobusen errei (4)**

Autobusek eta bizikletek erabiltzeko errei edo kale-zatia, behar bezala seinaleztatua. Batzuetan, beste zerbitzu publiko batzuek (udalekoak, taxiak, etab.) eta baimendutako trafikoko pribatu oso murriztuek (zamalanak, egoiliarrek egoera jakin batzuetan...) ere erabiltzen dute.

**es** carril bici-bus

108

**bizikleta-bazterbide (4)**

Errepideko bazterbidea hartzen duen bizikleta-bidea, noranzko bakarrekoa: alboko galtzadako zirkulazio motordunaren noranzkoa du. Fisikoki bananduta ez badago ere, bereizita dago, bideko seinaleen eta marren bidez, kolore- eta egitura-aldaketaren bidez, sestra-aldaketa txikien edo beste metodo batzuen bidez. Automobilerik aparteko egoeretan erabil dezakete.

**es** arcén-bici

109

**bizikleta-bide (4)**

Zikloentzat bereziki egokitutako bidea; seinale horizontal eta bertikal bereziak ditu, eta zikloak seguru ibiltzeko adinako zabalera.

**OHARRA:** Bizikleta-bideak izendatzeko, askotan, bidegorri izendapena erabiltzen da. Ezin da esan, ordea, bidegorri eta bizikleta-bide juridikoki sinonimo direnik. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-arauek bizikleta-bide definitzen dute termino generiko gisa, eta ez datoz bat bidegorri izendapenari ematen dioten esanahian.

**es** vía ciclista

**fr** voie cyclable

**en** bicycle way; bikeway; cycleway

110

**bizikleta-errei (4)**

Galtzadaren ondo-ondoko bizikleta-bidea, noranzko bakarrekoa edo bikoa.

**es** carril-bici; carril bici

**fr** bande cyclable

**en** bicycle lane; bike lane; cycle lane

111

**bizikleta-errei babestu (4)**

Galtzadatik eta espaloitik fisikoki bereizita egoteko alboetan elementu batzuk dituen bizikleta-errea.

**es** carril-bici protegido; carril bici protegido

**fr** piste cyclable sur chaussée

**en** cycle track; protected bike lane; separated bike lane

112

**bizikleta-espalo (4)**

Espalo gainean dagoen bizikleta-bide seinaleztatua.

**es** acera-bici; acera bici

**fr** piste cyclable au niveau du trottoir; piste cyclable à hauteur du trottoir

**en** sidewalk-level bike path; sidewalk bicycle path

113

**bizikleta-pista (4)**

Ibilgailu motordunen zirkulaziotik bereizita dagoen bizikleta-bidea, errepideenaz bestelako ibilbidea duena.

**es** pista-bici; pista bici

**fr** piste cyclable en site propre

**en** off-road bicycle path; off-road cycle path

114

**bizikleta-zidor (4)**

Oinezkoentzat eta zikloentzat bereziki egokitutako bidea, ibilgailu motordunen zirkulaziotik bereizitakoa; eremu zabalak, parkeak, lorategiak edo basoak zeharkatzen ditu.

- es** senda ciclable
- fr** sentier cyclable
- en** bicycle trail; bike trail

115

**bizitegi-kale (4)**

Oinezkoek lehentasuna izan dezaten berariaz egokitutako zirkulazio-eremua, zeinean zirkulazio-arau berezi hauek aplikatzen baitira: ibilgailuek ezin dute zirkulatu 20 km/h baino azkarrago, lehentasuna eman behar diete oinezkoei, eta seinaleztatuta edo markatuta dauden tokietan bakarrik aparka dezakete.

- es** calle residencial
- fr** rue résidentielle
- en** residential street

**burdinbide**

Ik. trenbide

116

**degaitasuna duten pertsonen soilik erabiltzeko aparkaleku (4)**

- es** zona de estacionamiento para uso exclusivo de personas con discapacidad

117

**dezelerazio-errei (4)**

Errei lagungarria, zirkulazio lasterreko errepide batetik irten eta bestelako errepide batean sartu behar duten ibilgailuek abiadura gutxitu dezaten egindakoa.

- es** carril de deceleración
- fr** bande de décélération; voie de décélération
- en** deceleration lane

118

**erabilera orokorreko bide (4)**

- es** vía de utilización general; vía de uso común

119

**erdibitzaile (4)**

Zirkulazio-noranzko ezberdineko bi plataforma banatzen dituen luzetarako zerrenda, zirkulaziorako prestatua ez dagoena.

- es** mediana; separador central
- fr** terre-plein central
- en** central reserve; median

120

**erdiko errei (4)**

Errei-kopuru bakoitia eta bi zirkulazio-noranzkoak dituen galtzadako erreia: ibilgailuek noranzko batean zein bestean erabil dezakete, baita errei alderantzikagarri edo itxarote-errei gisa ere.

- es** carril central
- fr** voie médiane
- en** center lane

121

**errail (4)**

Haga edo antzeko elementu zurruna, ibilgailuek edo bestelako aparatu mugikorrek zirkulatzeko prestatua.

- es** raíl
- fr** rail
- en** rail

122

**erregai-zerbitzugune (4)**

Sin. gasolindegia (4); ezantzategi (4)  
 Ibilgailuak erregaiz hornitzeko instalazioa, ibilgailuak mantentzeko bestelako zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituena.

- es** estación de servicio de carburante; estación de servicio; gasolinera  
**fr** station-service; poste d'essence; station d'essence; pompe à essence  
**en** service station; petrol station; filling station; gas station

123

**errei (4)**

Galtzada bat zati dezaketen luzetarako zerrendetako bakoitza; motozikletez bestelako automobilen ilara batek zirkulatzeko adinako zabalera du, eta luzetarako bide-markek zedarriz dezakete.

- es** carril  
**fr** voie; voie de circulation  
**en** lane; traffic lane

124

**errei alderantzikagarri (4)**

Bi noranzkoko galtzada baten erdiko erreia, zirkulazio-premien arabera noranzko batean zein bestean erabil daitekeena.

- es** carril reversible  
**fr** voie à sens réversible; voie réversible  
**en** reverse-flow lane; reversible lane

125

**errei berezi (4)**

Ibilgailu-mota edo eginkizun jakin batzuetarako erreserbatutako erreia.

- es** carril especial  
**fr** voie à circulation spécialisée  
**en** segregated traffic lane

126

**errei erreserbatu (4)**

Ibilgailu-mota jakin batek soilik erabil dezakeen errei berezia.

- es** carril reservado  
**fr** voie réservée  
**en** reserved lane

127

**errei gehigarri (4)**

Bazterbideak dituzten galtzadetan gaitzen den erreia, zirkulazio-noranzkoetako batean bi errei eta bestean errei bakarra izateko erabiltzen dena.

- es** carril adicional

128

**errei lagungarri (4)**

Galtzadaren ondo-ondoan dagoen edota galtzadaren zati den erreia, aparkatzeko, abiadura aldatzeko, bira egiteko edo beste zirkulazio-helburu batzuetarako egina.

- es** carril auxiliar  
**fr** voie auxiliaire  
**en** auxiliary lane

**errei motel**

Ik. zirkulazio motelerako errei

129

**errepide (4)**

Herriz kanpo dagoen bide publiko zoladuraduna. Zeharbideetako bide-tarteak ez dira errepidetzat hartzen.

- es** carretera  
**fr** route  
**en** road

130

**errepide arrunt (4)**

Sin. bide arrunt (4)

Autobide, autobia eta automobil-bideen ezaugarri bereizgarriak ez dituen errepidea.

**es** carretera convencional; vía convencional**fr** route à statut ordinaire; route ordinaire**en** ordinary road; ordinary two-lane road

131

**errepide-sare (4)**

Sin. bide-sare (4)

Eremu geografiko jakin bateko errepideen eta bideen multzoa.

**es** red de carreteras; red viaria**fr** réseau routier**en** road network

132

**espaloï (4)**

Errepidean luzetara dagoen gunea, oinezkoak bertatik ibiltzeko egina; errepidea baino gorago edo errepidearen maila berean egon daiteke.

**es** acera**fr** trottoir**en** pavement

133

**Estatuko Errepide Sarea (4)****es** Red de Carreteras del Estado; RCE

134

**Estatuko sare orokorreko errepide (4)****es** carretera de la red general del Estado

135

**etorbide (4)**

Sin. hiribide (4)

Plaza edo leku garrantzitsuren batetik abiatzen den edo han amaitzen den kale zabala, zuhaitzez inguratuta egon ohi dena.

**es** avenida**fr** avenue**en** avenue**ezantzategi**

Ik. erregai-zerbitzugune

136

**frenatzeko gune (4)**

Sin. larrialdian frenatzeko gune (4); balaztatzeko gune (4); larrialdian balaztatzeko gune (4)

Malda-behera handi eta luzeetan ibilgailuaren frenoek huts eginez gero ibilgailua gelditzeko erabiltzen den gunea.

**es** lecho de frenado; lecho de retención; zona de frenado de emergencia**fr** lit d'arrêt; lit d'arrêt d'urgence**en** arrester bed

137

**galtzada (4)**

Ibilgailuen zirkulaziorako prestatutako errepide-atala, zenbait erreiz osatua.

**es** calzada**fr** chaussée**en** carriageway

138

**galtzada gehigarri (4)****es** calzada adicional

139

**galtzadaren ardatz (4)**

Irudikatutako edo bide-marka batez seinaleztatutako lerroa, galtzada baten zabalera erdibitu ohi dena.

**es** eje de la calzada**fr** axe de la chaussée**en** axis of the carriageway

140

**galtzadaren ertz** (4)

Sin. galtzadaren hegi (4)

**es** borde de la calzada**fr** bord de la chaussée**en** edge of the carriageway**galtzadaren hegi**

Ik. galtzadaren ertz

141

**garaje** (4)

Ibilgailuak aterpean gordetzeko tokia.

**es** garaje**fr** garage**en** garage**gasolindegia**

Ik. erregai-zerbitzugune

**geldileku**

Ik. geraldere

142

**geraleku** (4)

Sin. geldileku (4)

Garraio publikoko ibilgailu batek bere ibilbidean geldituena egiteko duen lekua, bidaiariak igotzeko edo jaisteko ezarria.

**es** parada**fr** arrêt; point d'arrêt**en** halt; stop

143

**goranzko aldapa** (4)

Sin. malda-gora (4)

Aurreko noranzkoan sestra batek duen goranzko inklinazioa.

**es** rampa**fr** rampe; montée**en** ascending gradient; upgrade; slope upwards**herri**

Ik. hiri

144

**hiri** (4)

Sin. herri (4)

Eraikinak dituen eremua; haren sarrerako eta irteerako bideetan, hurrenez hurren, herriko sarrera eta herriko irteera adierazten duten seinaleak daude kokatuta.

**es** poblado**fr** agglomération**en** built-up area

145

**hiri barruko bide** (4)

Herri edo hiri baten barruan igarotzen den bide publikoa. Zeharbideak ez dira hiri barruko bidez hartzen.

**es** vía urbana**fr** route urbaine**en** urban road

146

**hiriarteko bide** (4)

Herri edo hiri batetik kanpo igarotzen den bide publikoa.

**es** vía interurbana**fr** route interurbaine**en** rural road**hiribide**

Ik. etorbide

147

**hiriko bide-sare** (4)

Hirigune edo herrigune bateko bideen multzoa.

**es** red viaria urbana

148

**ibi** (4)

Espaloiaren ertz beheratua, ibilgailuak garajeetara edo aldameneko lursailletara sartu ahal izateko egokitua.

**es** vado**fr** bateau de porte**en** driveway entrance

**ibiltoki**

Ik. pasealeku

**149**

**ikuspen urriko bihurgunea (4)**

Segurtasunez zirkulatzeko adinako ikuspenik ez duen bihurgunea: galtzadaren zabalera osoa, kontrako noranzkoan zirkulatzeko duten ibilgailuak edo atzetik datozenak behar adinako distantziatik ikustea eragozten du.

**es** curva de visibilidad reducida

**150**

**ikuspen urriko sestra-aldaketa (4)**

Segurtasunez zirkulatzeko adinako ikuspenik ez duen sestra-aldaketa: noranzko batean nahiz bestean zirkulatzeko duten ibilgailuek elkar ikustea eta maniobrak segurtasunez egin ahal izatea eragozten du.

**es** cambio de rasante de visibilidad reducida

**151**

**ingurabide (4)**

Herri edo hiri bat osorik edo zati batean inguratzen duen bidea, hara doazen bideak lotzen dituena.

**es** circunvalación; ronda

**fr** rocade

**en** ring road; siding

**152**

**irlatxo (4)**

Bidegurutzetako erreien arteko eremua, zirkulatzeko erabili ezin dena; goratuta edo bide-marken bidez mugatuta egoten da, eta zirkulazioa bideratzeko eta oinezkoak babesteko funtzioa du.

**es** isleta

**fr** îlot

**en** island

**153**

**irteera-adar (4)**

Lotune batean, bide batetik beste bide batera irteteko adarra, zehazki bide nagusi batetik bigarren mailako batera irtetekoa.

**es** ramal de salida

**fr** rampe de sortie

**en** exit ramp; off ramp

**154**

**irteerarik gabeko galtzada (4)**

**es** calzada sin salida

**155**

**itxarote-errei (4)**

Era berezian seinaleztatutako errei lagungarria, bira egiteko aurkako noranzkoko errei bat edo gehiago zeharkatu behar dituzten ibilgailuentzat egina.

**es** carril de espera; carril de giro

**fr** file d'attente; voie de présélection

**en** turning lane; waiting lane

**156**

**jabari publikoko bide (4)**

**es** camino de dominio público

**157**

**jabeen zerbitzuko bide (4)**

Bide-jabeen jarduera espezifikoen osagarri edo lagungarri gisa eraikitako bidea. Ez da errepidetzat hartzen, eta ez da errepidearen elementu funtzionala ere.

**es** camino de servicio

**kabala-bide**

Ik. abelbide

158

**kale (4)**

Sin. karrika (4)

Hiri edo herrietan, oinezkoen edo ibilgailuen zirkulaziorako prestatutako espazio publikoa, alboetan eraikinak edo orubeak dituena; herri edo hiri bateko hainbat tokitar joatea ahalbidetzen du, baita toki horien arteko komunikazioa ere.

**es** calle  
**fr** rue  
**en** street

**karrika**

Ik. kale

159

**kilometro-puntu (4)**

Sin. KP (4)

Bide baten luzera kilometrotan adierazten duten puntuetako bakoitza, kilometro-mugarrien bidez jakinarazten dena.

**es** punto kilométrico; P.K.  
**fr** point kilométrique; PK  
**en** mileage point

**konkor**

Ik. “mando-bizkar” erako abiadura-murriztaile

**KP**

Ik. kilometro-puntu

**kurba**

Ik. bihurgune

**laborantzako bide**

Ik. nekazaritza-bide

**larrialdian balaztatzeko gune**

Ik. frenatzeko gune

**larrialdian frenatzeko gune**

Ik. frenatzeko gune

160

**lehentasunezko arretako bide publiko (4)**

Udal-ordenantza bati jarraikiz araututako bidea, zirkulazio handia izan ohi duena. Tokian tokiko udalak neurri bereziak hartzen ditu lehtasunezko arretako bide publikoaren zirkulazioa kontrolatzeko, eta zirkulazioa ohi baino urriagoa den ordu edo egunetara mugatzen ditu bidea afektatzeko edo okupatzeko baimenak.

**es** vía pública de atención preferente

161

**lehentasunezko bidegurutze (4)**

Lehtasunezko bide bat lehtasunezkoa ez den bide batekin gurutzatzen den gunea.

**es** intersección con prioridad

162

**lehentasunezko galtzada (4)**

**es** calzada con prioridad; calzada preferente

163

**lepo (4)**

Bi tontorren arteko sakonune arina, igarobide izan ohi dena.

**es** collado  
**fr** col  
**en** pass

164

**lotune (4)**

Errepide-sarearen gurutzagunea, zeinean bertatik igarotzen diren ibilgailuen gurutzatze-mugimenduren bat, gutxienez, beste maila batean egiten den.

**es** enlace  
**fr** carrefour à niveaux séparés; carrefour dénivelé; échangeur  
**en** grade-separated junction; multilevel junction

165

**maila bereko itzulbide (4)**

es cambio de sentido al mismo nivel

166

**maila desberdineko itzulbide (4)**

es cambio de sentido a distinto nivel

**malda**

Ik. aldapa

**malda-behera**

Ik. beheranzko aldapa

**malda-gora**

Ik. goranzko aldapa

167

**“mando-bizkar” erako****abiadura-murriztaile (4)**

Sin. konkor (4)

Abiadura-murriztailea, segmentu zirkularreko ebakidurakoa. Bi eratakoa izan daiteke: in situ egindakoa edo prefabrikatua.

es reductor de velocidad tipo “lomo de asno”; badén

fr ralentisseur de type dos d'âne

en round-top road hump

168

**maniobra-eremu (4)**

es zona de maniobras

169

**mendate (4)**

Mendi arteko igarobidea.

es puerto de montaña

fr col

en mountain pass

170

**nasa (4)**

Zerrenda luze baten moduko eraikuntza, tren- nahiz autobus-geltokietan eta portuetan bidaiarien sarrerak nahiz irteerak eta salgaien zamatanak errazteko eraikia.

es andén

fr quai

en dock; platform

171

**nekazaritza-bide (4)**

Sin. laborantzako bide (4)

Jabeen zerbitzuko bidea, nekazaritza-lursailetara sartzeko egina eta batik bat traktoreek eta nekazaritzako makinek erabiltzeko diseinatua.

es camino agrícola

fr chemin agricole

en farm track

172

**noranzko bakarreko bide (4)**

es vía de sentido único

fr route à sens unique; route unidirectionnelle

en one-way road

173

**noranzko bakarreko galtzada (4)**

es calzada de sentido único

174

**noranzko biko galtzada (4)**

es calzada con doble sentido de la circulación

175

**ohiko noranzkoaren kontra ibiltzeko erre (4)**

es carril de utilización en sentido contrario al habitual; carril de sentido contrario al habitual

176

**oinezkoen babesgune (4)**

Oinezkoak ibilgailuen zirkulaziotik babesteko galtzada-gunea.

**es** refugio

**fr** refuge

**en** pedestrian refuge; refuge

177

**oinezkoen gune (4)**

Oinezkoentzat erreserbatutako bide-eremua, goratua edo beste nolabait zedarritua. Oinezkoen guneak dira, esaterako, espaloia, nasa eta ibiltokia.

